



Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa, Donostia 2016

Emaizen txostena

Andoainen, 2017ko ekaina.



1. Sarrera.....	2
2. Metodologia	3
2.1 Hizkuntzen Erabileraren Euskal Herriko Kale-Neurketaren metodologia	3
2.2 dDonostia, 2016dneurketaren fitxa teknikoa.....	8
2.3 Laginaren osaera	10
3. Erabilera Donostian, 2016. urtean: emaitza orokorra	14
3.1 Donostiako kaleetan, solaskideen %15,2 entzun dugu euskarazko elkarriketetan	14
3.2 Erabileraren bilakaera Donostian (1993-2016).....	15
3.3 Euskal Herriko, EAE-ko, Gipuzkoako eta Donostialdeko erabilera datuekin alderaketa	16
3.4 Hiriburuetakoz hizkuntzen kale-erabileraren emaitzak	17
4. Auzoen arabera emaitzak.....	19
5. Hitzunen ezaugarrien arabera datuak	21
5.1 Sexuaren arabera emaitzak	21
5.2 Sexuaren arabera bilakaera	22
5.3 Adinaren arabera emaitzak	23
5.4 Adinaren arabera erabileraren bilakaera.....	24
6. Euskararen erabilera eta haurren presentzia	25
6.1 Haurren presentziaren arabera euskararen erabilera	25
6.2 Erabilera eta haurren presentzia: bilakaera	26
7. Datu nagusien irakurketa (laburpena).....	27
8. Eranskinak	28
8.1 Ibilbideak eta planoak.....	28
8.2 Neurraldiak eta zonaldeak	44
8.3 Sexuaren arabera hizkuntzen kale-erabilera, zonaldeen arabera.....	47
8.4 Adinaren arabera hizkuntzen kale-erabilera, zonaldeen arabera.....	53
8.5 Haurren presentziaren arabera hizkuntzen kale-erabilera, zonaldeen arabera.....	61



1. Sarrera

Euskararen egoera nolakoa den deskribatzeko garaian, askotan jotzen da iritzia ematera. Baina subjektibotasuna saihesteko, gero eta garrantzitsuagoa da egoeraren berri emango duten datuak eskuartean izatea, balorazioetan objektibotasuna lortzeko. Hala, datu horien bila ekin nahian, herriko euskararen presentzia nolakoa den adierazteko, funtsezkoa da kalean zenbat euskara erabiltzen den jakitea. Izan ere, soziolinguistika-arloko eskarmentuak erakutsi du erabilera dela hizkuntza baten egoeraren adierazle esanguratsuen eta fidagarriena.

Hizkuntza erabiltzea gizakion jardun arrunt ohikoa da. Nonahi, noiznahi, baliatzen dugu hizkuntza. Giza izaeraren bereizgarria da. Baina, testuinguru eleaniztunetan, euskararen kasuan bezala, hizkuntza bat edo bestea erabiltzea ez da jarduera arautua edota patroiz jakinei obeditzen diena. Horrenbestez, hizkuntzen erabilera hori neurtzea ariketa konplexua da, eta metodologia findua eskatzen du. Helburu horri erantzuteko asmoz, sortu eta garatu dugu kaleko hizkuntza-erabilera neurtzeko metodologia.

Kale-erabileraren neurketaren metodologia horri esker, abantaila handiak lortzen dira herriko errealitatera hurbiltzeko, eta, beraz, funtsezkoa bihurtzen da herri-mailan hizkuntza-errealitatea ezagutu edota planifikatu nahi duen edonorentzat. Batetik, lehen aipatu moduan, objektibotasuna lortzen da herriko errealitate soziolinguistikoaz aritzeko garaian. Gainera, herriko hizkuntza-egoera ezagutzeko beste hainbat datu badaude ere (eroldako ezagutza-datuak, ikastetxe eta euskaltegietako matrikulazio-datuak), datu horiek guztiak herriko kaleetan entzun daitekeen eguneroko jardunean nabarmentzen dira. Bestalde, ohikoa izaten da baliabide urriak edukitzea euskararen aldeko sustapen-planak egiterakoan eta horrek premiarik handiena duten eremuak zein diren jakitea eskatzen du lehentasunak ezartzeko.

Ondorioz, kale neurketen emaitzak beharrezkoak dira lehentasun horiek ezartzeko edota datu xeheagoak eskuratze aldera. Izan ere, hainbat erabilera-datu eskura daitezke neurketaren bidez, adin-talde bakoitzak kalean euskara zenbat erabiltzen duen, besteak beste. Era berean, neurketa horiek maiztasunez eginez gero, bilakaera ezagutu ahal izango da, eta, modu horretan, herrian izaten diren hizkuntza-aldaketak gertutik jarraitzeko aukera izango da.



2. Metodologia

2.1 Hizkuntzen Erabileraren Euskal Herriko Kale-Neurketaren metodologia

Donostian egindako kale-neurketaren metodologia Hizkuntzen Erabileraren Euskal Herriko Kale-Neurketan garaturikoan oinarritua dago. 2.2. atalean azalduko diren fitxa teknikoko moldaketak soilik egin behar izan dira metodologia herriko berezitasunetara egokitzeko.

Hizkuntzen Erabileraren Euskal Herriko Kale-Neurketa 1989. urtean egin zen lehen aldiz, eta geroztik sei alditan errepikatu da: 1993an, 1997an, 2001ean, 2006an, 2011n eta 2016an. Ikerketaren zazpigarren edizioa burutu berri du Soziolinguistika Klusterrak beraz, kalean hizketan 450.000 hiztun inguru behatzea lortu delarik. Dagoeneko hogeita hamar bat urteko esperientzia metatuta, metodologia aski frogatua eta kontrastatua dugu eta erreparorik gabe esan dezakegu, gaur egun, euskararen egoera zertan den ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia bilakatu direla datu horiek. Horregatik, Donostiako hizkuntza-erabileraren 2016ko kale neurketaren emaitzak biltzen diren txosten honetan ere, Euskal Herriko Kale-Neurketan lorturiko emaitza berriekin alderatuko dugu Donostiako hizkuntza-erabilera.

Kale-neurketan erabiltzen den teknika behaketa zuzena da; hau da, ezertxo ere galdetu gabe, neurtzaileek herriko kaleetan zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jasotzen da. Hala, bere helburua praktikan hizkuntza bakoitza erabiltzearen ekintzak zenbateko maiztasun erreala duen kontrolatzea da. Izan ere, teknika honen abantaila azpimarragarrienetakoa neurtzaileek hiztunaren joera naturala jasotzen dutela litzateke datuen subjektibotasuna saihestuz eta emaitza fidagarriagoak lortuz.



Landa-lana

Landa-lana behar bezala egiteko, diseinu teknikoaren fasean beharrezkoa da aurrez bi datu zehaztea: ibilbidea eta neurraldiak, hain zuzen ere. Alde batetik, beraz, herriko kalerik jendetsuenak biltzea irizpide nagusitzat hartuz (plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa kaleak, eta abar.) neurtu beharrezko kale horiek finkaturiko ibilbidea(k) definitzen d(ir)a. Bestalde, neurketarako egun eta orduak zehaztu behar dira, helburu nagusia herriko biztanle guztiak (potentzialki behintzat) neurtzea izanik. Nolabait ere, hautatutako egun eta orduetan herritar guztien hizkuntza-jarduera estatistikoki neurtzeko aukera bildu nahi da neurraldien eta ibilbideen diseinuarekin.

Elkarrizketa-hizkuntza

Oinarrizko behaketa-unitatea taldeko elkarrizketa-hizkuntza da, ez dugu norbanakoaren hizkuntza neurtzen. Beraz, ezinbestean, bi lagun edo gehiagoren arteko elkarrizketak dira zenbatzen direnak. Dena den, bakarrizketa gisa jasotzen ditugu elkarrizketa-mota batzuk: adibidez, mugikorreko elkarrizketen kasua, non hiztun bakarraren informazioa jasoz biltzen den elkarrizketa-datua.

Bestalde, normalean soilik bat edo bi lagun entzuteko denbora izaten da, eta beraz, taldeko elkarrizketa-hizkuntza definitzerakoan, une horretan hizketan ari denaren hizkuntza hartzen da kontuan talde osoarentzat.

Azkenik, gerta daiteke pertsona batek hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea bere jardunean. Kasu horietan, hizkuntza nagusia jasotzen da, gehien erabiltzen duena alegia.

Fitxak

Neurketetan erabilera-datuak biltzeko fitxa bakarra erabiltzen da. Material horren bidez, hiztunen ezaugarriak jasotzen dira, aldagai horiek hizkuntza-erabileran suposatzen duten baldintzapenaren neurri bat ateratzea ahalbidetuz. Hala, erabilera zenbatekoa den jakiteaz gain, hiru aldagai hauek euskararen erabileran duten eragina neurtzeko aukera eskaintzen digu fitxak: sexua, haurren presentzia eta neurtu diren taldeen adin-osaketa.

Neurraldi guztietan erabiltzen da fitxa bera; ikus ondoren fitxa horren irudiak:

**HIZKUNTZA
ERABILERAREN
KALE NEURKETA**
SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
T: 943 592 556
kaleneurketak@soziolinguintika.eus

HERRIA: _____
IBILBIDEA: _____
EGUNA: _____ ORDUA: _____
NEURTZAILEAK: _____

	EUSKARA	GAZTELERA	FRANTSESÀ	BESTERIK	HAURRAK (2-14 urte)	GAZTEAK (15-24 urte)	HELDUAK (24-64 urte)	ADINEKOAK (65-... urte)	Haurrak hitz egiten	
									BAI	EZ
01										
02										
03										
04										
05										
06										
07										
08										
09										
10										
11										
12										
13										
14										
15										
16										
17										
18										
19										
20										

Emakumezkoa
Gizonezkoa

OHARRAK:

	EUSKARA	GAZTELERA	FRANTSESÀ	BESTERIK	HAURRAK (2-14 urte)	GAZTEAK (15-24 urte)	HELDUAK (24-64 urte)	ADINEKOAK (65-... urte)	Haurrak hitz egiten	
									BAI	EZ
21										
22										
23										
24										
25										
26										
27										
28										
29										
30										
31										
32										
33										
34										
35										
36										
37										
38										
39										
40										
41										
42										

Emakumezkoa
Gizonezkoa



óDonostiarrenô erabilera baino gehiago, Donostiako kaleetakoa

Azaltzen ari garen metodologia honek badu muga bat: ezin da ziurtatu kalean hizketan ari diren hiztun guztiak herrikoak direnik. Horregatik, ez da egokia neurtutakoa herriko biztanleen hizkuntza-erabilera dela esatea, izan ere, neurtutakoa herriko kaleetan jaso den erabilera da. Dena den, herrikoen erabilerara hurbiltzeko asmoz, kasu batzuetan nabarmen kanpotarrak (turistak) direnen elkarrizketak modu berezitan jaso ditugu.

Erabilera-datuen neurketek bere zailtasuna ere badutela gogoan izan behar da, hizkuntza-erabilera aldakorra den heinean. Beraz, kontuan izan behar da datu adierazgarriak jasotzen badira ere, euskararen kale-erabilera hori neurri txiki batean aldagarria dela. Horren arrazoia ulargarria da: kalean noiz norekin topo egingo dugun aurreikusi ezin daitekeenez, euren jarduera neurtzen diren hiztunak ez dira beti berdinak eta horrek herriko euskararen kale-erabileraren datua aldarazi dezake. Muga hori gainditzeko da, besteak beste, bereziki interesgarria maiztasun jakin batekin neurketak egin eta joera nagusiei erreparatzea. Hala eta guztiz ere, metodologia honek emaitzetatik zenbait ondorio orokor ateratzea bermatzen du.

Adierazgarritasuna

Datuen adierazgarritasuna bermatzeko garrantzitsua da laginaren tamainari begiratzea, behatutako elkarrizketa-kopuruari alegia. Are gehiago, aurrez aipaturiko hiru aldagaiek (sexua, adina eta haurren presentzia) euskararen kale-erabileran duten eragina aztertzeko, gutxieneko elkarrizketa-kopuru bat bete behar da adierazgarritasun hori lortzeko.

Zentzu horretan, aldagaia zenbat eta zehatzagoa izan (adin-taldeak sexuaren arabera bereizterakoan, adibidez), lagina txikiagoa bihurtzen da, eta datuek adierazgarritasuna galtzen dute beharrezkoa den gutxieneko elkarrizketa-kopurua ez bada jaso. Hau da, aldagai guztiak aztertzeko lagin handia behar izaten da, izan ere, aldagai bat zenbat eta gehiago deskonposatu lagin txikiagoa gelditzen baita. Horrela, adibideari erreferentzia eginez, gerta daiteke behatutako hiztunen adina taldeka banatzeko behar besteko lagina biltzea, baina adin-talde bakoitzean sexuaren arabera azterketa egiteko ez.

Oharrak

Atal honekin amaituz, hona hemen datu-bilketarako neurtzaileek eskura izan dituzten ohar-orriak:

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

Zer neurtu behar da?

Kalean, eta soilik **kalean dabilen jendearen arteko hizkuntza erabilera**. Leku itxiak beraz (tabernak, dendak, kiroldegia, etxeak, lantegiak, garraioak, edonolako lokalak,...), neurketa honetatik kanpo geratuko dira.

Neurtzaileak

- Neurketa **bikoteka** egingo da. Pertsona bakar batek ere egin lezake, baina egoikiagoa da neurtzaileak binaka aritzea. Izan ere,
- Errazagoa da. Batek jendea entzun eta besteak zer apuntatu behar duen esan diezaiola.
- Biren artean askoz hobeto disimulatzen da, eta oso inportantea da saiatzea inor ez dadin konturatu neurketa egiten ari garela. Gainerakoan, jendearen jokabide naturalak alda daitezke; isilduz, hizkuntza aldatuz, haserretuz,...

Neurketa, ez inkesta

Kalean goazela jendea ez zaio galdetu behar normalean zein hizkuntzatzen hitz egiten duen edo une horretan zein hizkuntzatzen ari den mintzatzen. **Ez galdetu, entzun** egin behar dugu eta entzuten dugun hizkuntza jaso, jendea ez esan gabe. Gure helburua kaleko hizkuntza-errealitatea bere horretan jasotzea da, ahalik eta modurik objektiboenean. Kalean doazenez ez dute jakin behar neurketa egiten ari garenik.

IBILIDEA

Bikote bakoitzak **ibilbide jakin bat** izango du (koadernoaren atzealdean jaso da ibilbidearen mapa, kaleen izenak, neurketa egunak eta orduak). Ibilbidea herriko kalerik jendetsuenean osatuko dute, normalean erdiguneak (erdigunea zentzu zabalean ulertuta): erosketa-kaleak, poteo kaleak, haur jolas-lekuak, pasealeku eta parkeak, etab. Ibilbideak hasi eta bukatu leku berean egin beharko du, bikoteak behar bezainbat aldiz egin ahal izateko ibilbide hori, neurraldi bakoitzak irauten dituen bi ordu horietan.

Bikote bakoitza bere ibilbidean paseatzen ibiliko da. Ez dago arazorik noizbehinka eserlekuren batean eserita neurketa egiteko, eta batzuetan gainera, disimulatze-ko beharrezkoa ere izango da. Baina eserita denbora gehiegi ematea ere ez da komeni. Izan ere, helburua neurketa ibilbide guztian zehar egitea da.

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

Datuak nola jaso

Datuak orri berezietan jasoko dira (ikus beheko fitxa-orria). **Elkarrizketa bakoitza errenkada batean adieraziko da**, eta lau datu hartuko dira kontuan:

- Hizkuntza:** "Euskara", "gaztelera", "frantsesa" eta "bestetik" (beste hizkuntzak). Hego Euskal Herrian euskara edo gaztelera ez den beste hizkuntza bat entzuten badugu "bestetik" zutabearen adieraziko dugu. Eta gauza bera egingo dugu, Ipar Euskal Herrian euskara edo frantsesa ez diren beste hizkuntzekin.
- Adin taldea:** "Haurrak (2-14 urte bitartekoak)", "gazteak (15-24 urte)", "helduak (25-64 urte)" eta "adinekoak (65 urtetik gorakoak)". Jendeak zein adin izango duen sumatzea neurtzaileen egitekoa izango da, eta gutxi gorabehera egin beharrekoa da.
- Generoa:** Mintzakideen sexua jasoko dugu, "emakumezkoa" ala "gizonezkoa" den.
- Azkenik, **haurrek hitz egiten dutela** jasoko dugu, hau da, elkarrizketa entzuten dugun unean 2-14 urte bitarteko haurrak hitzun aktiboak diren "bai" ala "ez".

Neurketa nola egiten den azaltzeko **HIRU ADIBIDE** jarriko ditugu:

- Bi haur (neska bat eta mutil bat) badoaz euskaraz hitz egiten (**01 elkarrizketa**):
 - Euskaraz laukian "X" markatu.
 - Haurren zutabearen, emakumezkoen laukian "1" adierazi eta gizonezkoen laukian beste "1" adierazi.
 - "Haurrak hitz egiten" zutabearen "bai" laukian "X" markatu.
- Senar-emazteak gaztelaz hitz egiten ari dira haien artean, 5 urteko alaba eta 16 urteko semea beraiekin doaz baina hitz egin gabe (**02 elkarrizketa**):
 - Gaztelaz laukian "X" markatu.
 - Haurren zutabearen, emakumezkoen laukian "1" adierazi; gazteen zutabearen gizonezkoen laukian "1"; eta helduen zutabearen emakumezkoen laukian "1" eta gizonezkoen laukian beste "1" markatu.
 - Haurrak hitz egiten zutabearen "ez" laukian "X" seinatatu.
- Bost gazte, bi neska eta hiru mutil, gaztelaz ari dira (**03 elkarrizketa**):
 - Gaztelaz laukian "X" markatu.
 - Gazteen zutabearen emakumezkoen laukian "2" eta gizonezkoen laukian "3" adierazi.
 - Haurrak hitz egiten zutabearen "ez" laukian "X" markatu.

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

HERRIA: _____
 IBILBIDEA: _____
 EGUNA: Urriak 08 ORDUA: 18:00-20:00
 SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAK
 T: 943 592 556
 kaleneurketak@soziolinguistika.eus

	EUSKARA	GAZTELERA	FRANTSESA	BESTETIK	HAURRAK (2-14 urte)	GAZTEAK (15-24 urte)	HELDUAK (24-64 urte)	ADINEKOAK (65-... urte)	Haurrak hitz egiten	
									BAI	EZ
01	X				/	/				X
02		X			/		/	/		X
03		X				2	3			X
04	X								2	X
05		X							2	X
06				X			/	/		X
07			X		2		/			X
08		X				/	/			X
09		X						/	/	X
10		X					2			X
11	X					4				X
12	X				/		/			X
13		X						3		X
14	X				2			/		X
15		X					2	/		X
16		X			/	/				X
17	X					2	/			X
18	X				/		/	/		X
19	X				3		/			X
20		X				/	/			X

Emakumezkoa Gizonezkoa



2.2 óDonostia, 2016ô neurketaren fitxa teknikoa

Prozedurak

Aurreko puntuan azaldutako metodologiako xehetasun guztiak baliagarriak dira *Hizkuntzen Erabileraren Donostiako Kale-Neurketaren* berri emateko ere. Ez ditugu, hortaz, errepikatuko.

Ibilbideak eta landa-lana

Arestian aurreratu moduan, ibilbide bakoitzaren nondik norakoa zehazterakoan eta definitzerakoan, herriko kalerik jendetsuenak biltzea izan da irizpide nagusia: plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa-kaleak, eta abar. Ibilbidearekin batera, neurketa egiteko egunak eta orduak ere zehaztu ditugu, eta horiek hautatzean, herriko biztanle guztiak (potentzialki, behintzat) neurtu ahal izatea izan da gure helburua; alegia, hautatutako egun eta orduetan herritar guztiek edukitzea neurtuak izateko aukera.

Irizpide horiekin, 2016ko *Hizkuntzen Erabileraren Donostiako Kale-Neurketa* egiteko ibilbideak hemezortzi auzotan antolatu ditugu: **Aiete-Miramón-Zorroaga, Amara Berri, Antigua, Ibaeta, Añorga, Bidebieta, Altza, Egia, Gros, Uliá-Ategorrieta, Igeldo, Intxaurre, Loiola, Loiolako Erriberak, Martutene, Parte Zaharra, Erdialdea eta Amara Zaharra**. Guztira 34 ibilbide diseinatu ditugu hemezortzi auzo horietan zehar¹, lortutako emaitzak adierazgarriak eta emaitzak fidagarriak izan daitezzen.

¹ Ibilbide horietan guztietan behatu dugun kaleen zerrenda 1. eranskinean ikus daiteke.

Landa-lana

Landa-lanari dagokionez, 2016ko irailaren 21etik urriaren 22ra bitartean egin dugu, hiru neurraldiren arabera: asteazken arratsaldea (18:00-20:00 bitartean), larunbat goiza (11:00-13:00 bitartean) eta larunbat arratsaldea (18:00-20:00 bitartean). Ibilbide bakoitza, beraz, 6 orduz behatu da².

Aiete-Miramón-Zorroaga (12 ordu)	Aiete	Ulia-Ategorrieta (12 ordu)	Ulia 1
	Miramón ingurua		Ulia 2
Amara Berri (12 ordu)	Amara Berri 1	Igeldo (12 ordu)	Igeldo
	Amara Berri 2	Intxaurrondo (12 ordu)	Intxaurrondo 1
Antigua (12 ordu)	Antigua 1		Intxaurrondo 2
	Antigua 2	Loiola (12 ordu)	Loiola 1
Ibaeta (12 ordu)	Ibaeta 1		Loiola 2
	Ibaeta 2	Loiolako Erriberak (6 ordu)	Loiolako Erriberak
Añorga (12 ordu)	Añorga	Martutene (12 ordu)	Martutene 1
Bidebieta (12 ordu)	Bidebieta-Trintxerpe 1		Martutene 2
	Bidebieta-Trintxerpe 2	Parte Zaharra (12 ordu)	Alde Zaharra 1
Altza (12 ordu)	Altza 1		Alde Zaharra 2
	Altza 2	Erdialdea (18 ordu)	Boulevard-Avenida
Egia (12 ordu)	Egia 1		San Martín-Avenida
	Egia 2		Erdialdea 3
Gros (12 ordu)	Gros 1	Amara Zaharra (12 ordu)	Amara Zaharra 1
	Gros 2		Amara Zaharra 2
NEURKETAN IGAROTAKO ORDUAK: 216 orduko neurketa			

² Añorgan eta Igeldon ibilbide bakarra diseinatu badugu ere, 12 orduko datu-bilketa burutu da emaitza fidagarriak lor ditzagun. Ibilbide bakoitzeko neurraldiak zehazki noiz izan diren jakiteko, ikus 2.eranskina.



Unibertsoa, lagina eta emaitzen adierazgarritasuna

Unibertsoa: Donostiako kaleetan entzun daitezkeen elkarrizketak.

Lagina: behaketa egin dugun bitartean, behatu ditugun **14.355 elkarrizketek** eta horietan solaskide izan diren **38.632 solaskidek** osatu dute lagina³.

Akats-tartearen kalkulua (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria): Akats-tartea bertakoen datuekin kalkulatu dugu. $\pm 0,8\%$ koa elkarrizketen lagin osoarentzat, %95,0ko konfiantza mailan.

2.3 Laginaren osaera


Behatutako 14.642 elkarrizketa eta horietan solaskide izan diren 39.493 herritarren ezaugarriak jakitea beharrezkoa da unibertsoaren ordezkaragarritasuna aztertzeko garaian. Hau da, gure azterketarako laginaren osaerari erreparatzea garrantzitsua da donostiarren ezaugarriak modu berean bildu ote diren jakiteko eta zer nolako akatstartea dugun jakiteko. Beraz, laginaren osaerari erreparatuz, azterketan egin dezakegun akats tartearen balorazio bat egingo dugu.

Hala eta guztiz ere, laginaren osaera eta donostiarren adin-tarteen zein sexuaren pisuaren proportzionaltasunaren alderaketa neurri batean da kontuan hartzekoa, izan ere, ez baita bere horretan gure helburua herritarren erabileraren argazkia ateratzea, baizik eta Donostiako kaleetan entzuten den erabilera neurtzea. Kaleetan entzuten diren elkarrizketak ez dira soilik herritarren artekoak izaten, eta elkarrizketetan parte hartzen duten pertsonak ez dute zertan herritarrek dituzten ezaugarri berberak izan beharrik.

³ EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Zentsuaren arabera 2011n Donostian 177.302 herritar bizi ziren.

Adin-tarte osaera

1. GRAFIKOA eta TAULA: LAGINAREN ADIN-TARTE OSAERA, UNIBERTSOAREKIN ALDERATUZ. DONOSTIA, 2011-2016




	LAGINA (2016)		UNIBERTSOA (2011)	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)
2-14 urte	7.927	20,5	18.706	10,6
15-24 urte	3.869	10,0	15.591	8,8
25-64 urte	21.018	54,4	104.176	58,8
>64 urte	5.818	15,1	38.829	21,9
GUZTIAK	38.632	100,0	177.302	100,0

Iturria: Lagina: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa, Donostia 2016. Unibertsoa: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011.

Gure azterketetan, haurren presentzia handiagoa izan ohi da kalean, unibertsoaren proportzionaltasunak adierazten duena baino, eta aldi berean, heldu gutxiago izan ohi dira behatuak proportzioan. Gertakari hau ohikoa da Euskal Herriko Kale Neurketan, haurren kaleko presentzia handiagoa baita unibertsoan hartzen duten pisuarekin alderatuz, eta Donostian ere gauza bera gertatzen da. Ondorioz, kontuan hartzekoak dira adin-talde bakoitzaren pisuak datuak aztertzerakoan.

Sexu osaera

2. GRAFIKOA eta TAULA: LAGINAREN ETA UNIBERTSOAREN OSAERA, SEXUAREN ARABERA. DONOSTIA, 2011-2016



	LAGINA (2016)		UNIBERTSOA (2011)	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)
Emakumezkoak	21.492	55,6	94.512	53,3
Gizonezkoak	17.140	44,4	82.790	46,7
GUZTIAK	38.632	100,0	177.302	100,0


Iturria: Lagina: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa, Donostia 2016. Unibertsoa: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011

Gure azterketetan, emakumezkoek pisu handiagoa hartu ohi dute gizonezkoek baino. Gertakari hau ohikoa da Euskal Herriko Kale Neurketan, emakumezkoen kaleko presentzia handiagoa baita unibertsoan hartzen duten pisuarekin alderatuz, eta Donostian ere gauza bera gertatzen da. Ondorioz, kontuan hartzekoak dira pisu horiek datuak aztertzerakoan.

Auzoen pisuaren alderaketa

Beheko grafiko eta taulan ikus daiteke Donostiako auzoek laginean eta unibertsoan duten pisua. Ikus daitekeenez, gorabehera handiak daude auzo batetik bestera. Dena den, kontuan izan behar dugu gure aztergaia kalean entzuten ditugun elkarriketak direla, eta ondorioz, ohikoa dela gertatzea biztanleria handiko auzoren batean kaleko bitzta sozial gutxiago badago, gure laginean pisu txikiagoa hartu izana (eta alderantziz, noski).

3. GRAFIKOA eta TAULA: LAGINAREN ETA UNIBERTSOAREN OSAERA, BARRUTIEN PISUAREN ARABERA. DONOSTIA, 2011-2016




	LAGINA (2016)		UNIBERTSOA (2011)	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)
Aiete-Miramón-Zorroaga	1.280	3,3	14.495	8,1
Altza	1.247	3,2	19.323	10,7
Amara Berri	2.330	6,0	26.688	14,8
Amara Zaharra	1.920	5,0	6.285	3,5
Añorga	966	2,5	2.082	1,2
Antigua	2.700	7,0	14.409	8,0
Bidebieta	2.458	6,4	8.719	4,9
Egia	1.235	3,2	14.282	7,9
Erdialdea	7.551	19,5	9.702	5,4
Gros	2.401	6,2	18.696	10,4
Ibaeta	908	2,4	8.930	5,0
Igeldo	335	0,9	1.008	0,6
Intxaurrondo	896	2,3	15.521	8,6
Loiola	1.633	4,2	4.733	2,6
Loiolako Erriberak	1.507	3,9	-	-
Martutene	2.122	5,5	2.736	1,5
Parte Zaharra	6.199	16,0	3.810	2,1
Ulia-Ategorrieta	944	2,4	8.347	4,6
GUZTIAK	38.632	100,0	179.766	100,0

Iturria: Lagina: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa, Donostia 2016. Unibertsoa: Udalak emandako datuak.

3. Erabilera Donostian, 2016. urtean: emaitza orokorra

3.1 Donostiako kaleetan, solaskideen %15,2 entzun dugu euskarazko elkarrizketetan

4. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA. DONOSTIA, 2016




	Kop.	(%)
Euskaraz	5.881	15,2
Gaztelaniaz	31.100	80,5
Frantsesez	93	0,2
Beste hizkuntzetan	1.558	4,0
GUZTIRA	38.632	100,0

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa, Donostia 2016.

3.2 Erabileraren bilakaera Donostian (1993-2016)

5. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. DONOSTIA⁴, 1993-2016 (EUSKARAZ, %)




	Euskararen kale-erabilera	Oinarria (behatutako solaskideak)
	(%)	Kop.
1993	9,5	19.009
1997	14,0	15.579
2001	15,8	17.686
2006	18,2	17.089
2011	15,2	21.054
2016	15,2	38.632
2016 (Añorga + Igeldo gabe)	13,9	37.331

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa, Donostia 1993, 1997, 2001, 2006, 2011 eta 2016.

⁴ 2016an Donostian bi auzo gehiago neurtu dira: Igeldo eta Añorga. Auzo horien datuak kontuan hartzen ez badira, erabilera % 13,9koa da, eta horiek kontuan hartuz gero, % 15,2koa da.

3.3 Euskal Herriko, EAE-ko, Gipuzkoako eta Donostialdeko erabilera datuekin alderaketa

6. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERA. EUSKAL HERRIA, EAE, GIPUZKOA, DONOSTIALDEA eta DONOSTIA, 2016 (EUSKARAZ, %)




	Euskararen kale-erabilera	Oinarria (behatutako solaskideak)
	(%)	Kop.
Euskal Herria	12,6	515.260
EAE	15,4	414.986
Gipuzkoa	31,1	213.273
Donostialdea	19,5	93.682
Donostia	15,2	38.632

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak, Euskal Herria eta Donostia 2016.

3.4 Hiriburuetako hizkuntzen kale-erabileraren emaitzak

7. GRAFIKOA: DONOSTIAKO, BILBOKO, GASTEIZKO, IRUÑEKO eta BAIONAKO HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN EMAITZAK, 2016 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak, Donostia, Bilbo, Gasteiz, Iruñea eta Baiona, 2016.


1. TAULA: DONOSTIAKO, BILBOKO, GASTEIZKO, IRUÑEKO eta BAIONAKO HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN EMAITZAK, 2016 (%)

	Gasteiz	Bilbo	Donostia	Iruñea	Baiona
Euskaraz	3,7	2,5	15,2	2,9	1,9
Gaztelaniaz	92,5	93,6	80,5	93,9	1,9
Frantsesez	0,1	0,3	0,2	0,2	91,4
Beste hizkuntzetan	3,7	3,5	4,0	3,0	4,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	30.261	53.658	38.632	26.230	9.949

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak, Donostia, Bilbo, Gasteiz, Iruñea eta Baiona, 2016.

4. Auzoen araberako emaitzak

8. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERA, AUZOAREN ARABERA. DONOSTIA, 2016 (EUSKARAZ, %)





	Aiete-Miramon-Zorroaga	Altza	Amara Berri	Amara Zaharra	Añorga	Antigua	Bidebieta	Egia	Erdialdea
Euskaraz	26,1	4,2	18,2	17,6	46,2	22,3	7,9	14,2	12,1
Gaztelaniaz	73,0	93,5	80,0	79,1	53,6	75,9	91,6	84,4	81,4
Frantsesez	0,2	0,0	0,2	1,2	0,0	0,3	0,0	0,0	0,5
Beste hizkuntzetan	0,8	2,3	1,7	2,1	0,2	1,5	0,5	1,5	6,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	1.280	1.247	2.330	1.920	1.654 ⁵	2.700	2.458	2.700	7.551
Akats-tartea ⁶	4,76	4,26	3,37	3,59	4,19	3,12	3,26	4,23	1,85

	Gros	Ibaeta	Igeldo	Intxaurren	Loiola	Loiolako Erriberak	Martutene	Parte Zaharra	Ulia-Ategorrieta
Euskaraz	13,2	22,8	75,4	9,7	11,0	12,7	13,9	12,1	16,1
Gaztelaniaz	81,6	76,8	23,8	90,3	88,6	87,3	85,8	76,0	79,9
Frantsesez	0,5	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,2
Beste hizkuntzetan	4,7	0,4	0,8	0,0	0,4	0,0	0,4	12,0	3,8
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	2.401	908	508 ⁵	896	1.633	1.507	2.122	6.199	944
Akats-tartea ⁶	3,04	5,41	7,05	5,5	3,94	--- ⁷	3,68	2,09	4,95

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa, Donostia 2016.

⁵ Añorga eta Igeldoko datuak emateko, 12 orduz behatutako solaskideen erabilera datuak baliatu ditugu.


⁶ Barrutietako akats-tarteen kalkulurako % 50eko elebidun proportzioa erabili dugu.

⁷ Ez dugu akats-tarterik kalkulatu Loiola Erriberako biztanle kopurua ez dugulako.

5. Hiztunen ezaugarrien araberako datuak

5.1 Sexuaren araberako emaitzak

9. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. DONOSTIA, 2016 (%)




	GUZTIAK	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Euskaraz	15,2	15,0	15,5
Gaztelaniaz	80,5	81,0	79,9
Frantsesez	0,2	0,2	0,2
Beste hizkuntzetan	4,0	3,8	4,3
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	38.632	21.492	17.140

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa, Donostia 2016.

5.2 Sexuaren araberako bilakaera

10. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. DONOSTIA, 2006-2016⁸. (EUSKARAZ, %)




	Erab. orokorra (%)	Emakumezkoak	Gizonezkoak
2006	18,2	18,1	18,3
(Solaskide kopurua)	17.089	10.026	7.063
2011	15,2	15,1	15,3
(Solaskide kopurua)	21.054	11.943	9.111
2016	15,2	15,0	15,5
(Solaskide kopurua)	38.632	21.492	17.140

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak, Donostia 2006, 2011 eta 2016.

⁸ Sexuaren araberako bilakaerak aztertzerakoan, ez dira 1997 eta 2001eko neurketetako datuak kontuan hartu. Garai hartako diseinuetan 6 orduz soilik behatzen ziren aldagai hauek eta lagin txikia behatu genuen azken datuekin konparagarriak izan daitezzen.

5.3 Adinaren arabera emaitzak

11. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA ADINAREN ARABERA. DONOSTIA, 2016 (%)




	GUZTIAK	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
Euskaraz	15,2	26,9	13,0	13,5	6,9
Gaztelaniaz	80,5	71,4	83,6	80,7	90,1
Frantsesez	0,2	0,1	0,1	0,3	0,2
Beste hizkuntzetan	4,0	1,5	3,3	5,4	2,9
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	38.632	7.927	3.869	21.018	5.818

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa, Donostia 2016.

5.4 Adinaren arabera erabileraren bilakaera

12. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA. DONOSTIA, 1993-2016 (EUSKARAZ, %)




	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
1993	17,9	7,9	7,3	6,6
(Solaskide kopurua)	3.920	4.115	8.285	2.689
1997	23,6	12,6	11,8	7,6
(Solaskide kopurua)	3.418	3.031	7.119	2.011
2001	27,6	17,0	12,9	6,8
(Solaskide kopurua)	3.780	2.459	9.052	2.395
2006	33,9	18,2	15,1	7,4
(Solaskide kopurua)	3.590	1.789	8.991	2.719
2011	27,2	14,6	14,0	6,3
(Solaskide kopurua)	3.853	2.240	11.262	3.699
2016	26,9	13,0	13,5	6,9
(Solaskide kopurua)	7.927	3.869	21.018	5.818

